



## **SAN MARTZIAL ALARDEKO 2023ko ARGAZKI LEHIAKETAREN OINARRIAK**

### **GAIA**

Aurkeztutako argazkien gaia 2023ko San Martzialen ingurukoa izango da: entsaioak, ekainaren 28a, San Pedro Eguna eta San Martzial Eguna.

### **SARIAK (partaide bakoitzak sari bat besterik ez du eskuratzerik izango):**

**-1. SARIA:** Diploma edo garaikurra, 300 euro, eta argazkiaren argitalpena 2024ko programan

**-2. SARIA:** Diploma edo garaikurra, 200 euro eta argazkiaren argitalpena 2024ko programan

**-3. SARIA:** Diploma edo garaikurra, 100 euro eta argazkiaren argitalpena 2024ko programan

**-“GAZTEDIA SARIA” (8 eta 15 urte bitarte):** Oparia edo garaikurra, eta argazkiaren argitalpena 2024ko programan.

### **MODALITATEA**

Argazki digitalak edo paperezkoak aurkeztu ahal izango dira (azken modalitate honetan kopia digitala ere beharko da bidali)

### **FORMATUA**

1.- Paperean: argazki bakoitzaren alde txikiena gutxienez 15 cm-koa izango da, eta alde handiena gehienez 40 cm-koa.

2.-Formato digitala: Argazkia jpg edo tiff formatuan, 10Mb-ko gehienezko tamainarekin.

### **AURKEZTURIKO ARGAZKI KOPURUA**

Egileek ez dute 3 argazki baino gehiago aurkezterik izango.

### **IDENTIFIKAZIOA**

Paper formatuan: Argazki bakoitzaren atzealdean izenburua, egilearen datu pertsonalak eta telefonoa agertuko dira. Halaber adieraziko da “Gaztedia Saria”-n parte hartzekoa baldin bada.

Formatu digitalean: Fitxategiaren izena argazkiaren izenburua izango da. Emailean, argazkiaren izenburua, datu pertsonalak eta egilearen telefonoa eman beharko dira. Halaber adieraziko da “Gaztedia Saria”-n parte hartzekoa baldin bada.

### **JASOTZE EPEA**

2023ko uztailaren 29ko 20,00ak arte.

## **OBRAK JASOTZEA**

PAPEREAN: Amalen liburu-denda (Uztapide bertsolaria, 12) edo Manolo taberna (Kale Nagusia). Baita Irungo 10123 posta-kutxan ere (markatu erreferentzia gisa San Martzial Alardearen 2023ko Argazki Lehiaketa).

DIGITALEAN: Honako helbide honetara bidalita: *alardedeirun@gmail.com*.

## **EPAIMAHAIA**

Eskarmentu handiko pertsonak osatuko dute, eta haien erabakia apelaezina izango da.

## **SARI BANAKETA**

Tokia, eguna eta ordua behar bezala jakinaraziko dira. Erakusketaren inaugurazioarekin batera izango da.

## **ESKUBIDEAK ETA OBREN ITZULKETA**

Saritutako argazki guztiak San Martzial Alardeko Agintarien Batzarraren esku geratuko dira. Saritutako argazkiak, gainerako lanekin batera, Irun 2024ko Alardearen Programan argitaratuko dira, zeina irabazi asmorik gabeko argitalpena baita. Horietan guztietan egilearen izena aipatuko da.

Erakundeari dagokio edozein zalantza edo ezusteko ebaztea, eta bere erabakia apelaezina izango da.

Lehiaketa honetan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek erabat onartzen direla.



**EUSK**